BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4172

EBAZPENA, 2014ko urriaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratutako diru-laguntzen deialdia argitaratzen da, ekonomia-jarduera eta enplegua sortzea bultzatzeko neurri gisara.

2014ko irailaren 29ko bileran hartutako Erabakiaren bitartez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia onartu du, ekonomia-jarduera eta enplegua sortzea bultzatzeko neurri gisara; hala, bada, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartutako Lanbideren Estatutuek 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian xedatutakoarekin bat etorriz, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.– Ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia argitara ematea, ekonomia-jarduera eta enplegua sortzea bultzatzeko neurri gisara. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen, 2014ko irailaren 29ko batzarrean, eta ebazpen honi erantsi zaio.

Bigarrena.– Laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 8a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

EKINTZAILETZA-PROIEKTU BERRIAK FINANTZATZERA ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, EKONOMIA-JARDUERA ETA ENPLEGUA SORTZEA BULTZATZEKO NEURRI GISARA.

Azken urteotan bizi dugun krisi-ekonomikoko egoera orokortuaren ondorioz, eskariaren murrizketak eta kredituaren garestitzeak ekonomia-jardueraren sektore guztiei eragin diete, baina, bereziki, langile autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei.

Europa 2020 Estrategiak oinarritzat hartutako hiru lehentasun handietako bat hazkunde adimentsua da, hots, ezagueran eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea. Hain zuzen ere, baldintza orokorrak eta finantzazioa eskuratzeko modua hobetzean datza ildo horretako ekimen adierazgarrienetako bat, ideia berritzaileak hazkundea eta enplegua sortzen duten produktu eta zerbitzu bilaka daitezen bermatzeko.

Unera arteko egindako azterlanen arabera, EAEn, finantzaketa lortzeko zailtasunak oztopatzen du, nagusiki, ekintzailetza.

Euskal gizartea ohartzen da pertsona ekintzaileak edukitzearen garrantziaz: norberaren laneko etorkizuna diseinatzearen eta sortzearen aldeko apustua egiten dute, eta aldi berean, beste pertsona batzuentzako lan-aukerak sortzen dituzte. Proiektu horiek enplegua sortzeko duten gaitasunak guztiz nahitaezko bilakatzen du horiei osoko sostengua eskaintzea, dela hasieran, negozio-ideien bideragarritasunari buruzko aholkularitzarekin, dela proiektua abian jartzeko unean zein enpresa berrien bizitzaren lehen faseetan.

Horren ondorioz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzailetzari sostengua emateko programak sendotu nahi ditu, ekintzaileek finantzaketa errazago eskuratzeko tresna berri baten bidez, eta Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016 Enplegu Planaren zein 2013-2016 Plan Estrategikoaren esparruan. Izan ere, lehenengoaren xedeetako bat ekintzailetza erraztea eta autoenplegua sustatzea da, aberastasuna eta enplegua sortzeko oinarri gisara; bigarrenak, halaber, autoenplegua eta ekonomia-jarduera bultzatzea aipatzen ditu xedeen artean.

Horregatik guztiagatik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2014ko irailaren 29an egindako bileran onartu zuen enpresa-jarduera hastera zuzendutako maileguak diruz lagunduz enpresa txiki eta ertainak sortzea bultzatzera bideratutako laguntzen deialdia, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

1. artikulua.– Xedea.

Lanbidek 2014 ekitaldian enpresa txikiak eta mikroenpresak sortu eta abiarazteko sostengua ematera bideratutako laguntzak arautzea eta horien oinarriak ezartzea da deialdi honen xedea. Horretarako, hasierako inbertsioen finantzaketa-eragiketen interesak diruz lagunduko ditu, eragiketa horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetza-hitzarmena sinatzen duten finantza-erakundeekin gauzatzen dituzten heinean eta, beti ere, 2014-2016 Enplegu Planaren esparruan, ekonomia-jarduera eta enplegua sortzea bultzatzeko neurri gisara.

Lanbidek www.lanbide.net webgunean emango du argitara zer finantza-erakundek sinatu duten lankidetza-hitzarmen hori.

Deialdi honen ondorioetarako, enpresa txikien eta mikroenpresen definizioa Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2002/361/EE Gomendioan emandakoa izango da (2003ko maiatzaren 20ko Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago).

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– 800.000 euro bideratuko dira deialdi honen xedea betetzera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuaren 2014 ekitaldirako ordainketa-kredituaren kargura.

2.– Laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatu zenbatekoa, edo, indarreko legeriarekin bat aurrekontu-aldaketak onartuz gero, zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena. Eguneratzerik izango balitz, horren berri eman beharko da.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzetara jo ahalko dute sustatzaileek, enpresaburu indibidual gisara edo bazkide gisara, baldin eta enpresa edo ekonomia-jarduera berri bat, horren forma juridikoa edozein delarik ere, sortu eta garatzera bideratutako inbertsioak egiteko finantzaketa-akordio bat sinatzen badute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin deialdi honetan aurreikusitako laguntzak gauzatzeko lankidetza-hitzarmena izenpetu duten finantza-erakundeetako batekin. Horrez gainera, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) EAEn erroldatuta egotea eta benetako egoitza bertan izatea.

b) Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

c) Bideragarritasun-txostena eginda duen enpresa- edo negozio-proiektu bat izatea.

d) Jarduera berriari Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) zein epigrafetan emango zaion alta, aurreko bi urteetan epigrafe horretan aurretiaz alta emanda egon ez izana, diru-laguntza eskatzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

e) Nork bere enpresa edo negozioa sortzeko konpromisoa hartzea, jarduera berri hori ez den beste ezein jardueratan aritu gabe.

f) Diru-laguntzaren xede izango den enpresa-jarduerari 2 urtez eusteko konpromisoa hartzea, JEZen alta ematen den egunetik zenbatzen hasita.

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betebehar horiek egunean dituztela, eta, horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, hala xedatzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluak.

h) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

2.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak emateko, aurreko atalean deskribatutako pertsona onuradunek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresaren egoitza fiskala eta soziala EAEn ezartzea.

b) Laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik hilabeteko epean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea. Altaren data hori hartuko da jardueraren hasiera-datatzat.

c) Langile Autonomoen Araubide Berezian alta ematea, bere konturako langileen araubide berezian edo, hala badagokio, kasuan kasuko lanbide-elkargoaren mutualitatean, laguntza emateko ebazpena jakinarazi ondorengo hilabetean.

3.– Onuradunei diru-laguntza horiek emateko eta, bidezkoa denean, ordaintzeko, ezinbestekoa da itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitzea, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari badira.

4. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu ahalko dira, deialdi honen babesean, enpresa sortu berriak sortzeko beharrezkoak diren aktiboetan egindako hasierako inbertsioa finantzatzera bideratutako finantza-mailegu zein -errentamenduak. Eragiketa horiek deialdi hau gauzatze aldera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetza-hitzarmena izenpetu duten finantza-erakundeekin egin behar izango dira.

2.– Deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen finantza-mailegu zein -errentamenduko eragiketek deialdi honen beraren 5. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzeaz gainera, Lanbideren eta kasuan-kasuko finantza-erakundeen artean sinatutako hitzarmenean aurreikusitako gainerakoak ere bete beharko dituzte.

3.– Diruz lagundutako finantza-mailegu edota -errentamendu bidez finantzatutako inbertsioek enpresa edo jarduera berria abiarazteko beharrezko aktiboak erosteko hasierako inbertsioa ordaintzera bideratuta egon beharko dute; horrela, aktibo horiek beheko kategoria hauetakoren batekin bat etorri beharko dute, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak jasotako Kontabilitate Plan Orokorrak berariaz ematen duen definizioaren arabera:

210 Lurrak eta ondasun naturalak.

211 Eraikuntzak.

212 Instalazio teknikoak.

213 Makineria.

214 Tresneria.

215 Beste instalazio batzuk.

216 Altzariak.

217 Informazio-prozesuetarako ekipoak.

218 Garraio-elementuak, jarduera nagusia pertsonak edota salgaiak garraiatzea bada.

219 Bestelako ibilgetu materialak.

Finantza-errentamenduz egindako erosketen kasuan, 6211 epigrafea baliatu ahalko da.

Era berean, inbertsioa aktibo zirkulatzailean egiteko aukera ere bada, baldin eta aktibo zirkulatzailean egindako inbertsioaren ehunekoa inbertsioaren guztizkoaren % 25 edo hortik beherakoa bada.

4.– Nolanahi ere, inbertsio-planean sartutako ondasunek harreman zuzena izan beharko du diruz lagundutako jarduerarekin.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen finantza-eragiketak.

1.– Finantza-mailegu eta -errentamenduen ezaugarriak:

a) Maileguaren gehienezko zenbatekoa: 50.000 euro sustatzaile bakoitzeko; zenbateko horrek inolaz ere ezingo du gainditu proiektuaren inbertsioaren % 95.

b) Epea: 5 urte, gehienez ere. Maileguen kasuan, epe horren barruan sartzen da maileguaren lehen 6 hileetako gabealdia.

c) Epemugak: gutxienez, hilean behingoak.

d) Eragiketei aplikatuko zaien gehieneko interes-tasa: % 7ko UTB, komisio eta gastu mota guztiak barne.

2.– Ez da inolako berme edo abalik eskatuko deialdi honetan jasotako maileguetan, eta ez zaie ikerketa- edo irekiera-komisiorik aplikatuko.

3.– Finantza-errentamendu bidez –uztailaren 29ko 26/1988 Legeak, Kreditu Erakundeen Diziplinari eta Esku-hartzeari buruzkoak, Zazpigarren Xedapen Gehigarrian definitzen duen bezala– finantzatutako aktibo finkoei dagokienez, pertsona onuradunak ondasun hori erosten bukatzeko aukera gauzatu beharko du, nahitaez.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Finantza-erakundeekin sinatutako hitzarmenaren babesean onartutako finantza-eragiketan adostu diren interesen eta % 4ko interesen arteko aldea izango da Deialdi honen babesean emango den diru-laguntzaren zenbatekoa. Zenbateko hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratutako interes-tasa nominala aplikatuz eguneratu egingo da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa finantza-mailegu edo -errentamenduaren hasierako kapitala amortizatzeko aplikatuko da.

2.– Interes-tasen hobaria ezingo da eragiketa baimentzean edo formalizatzean baimendu edo jarritako interes-tasa baino handiagoa izan.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak jaso nahi dituzten pertsonek http://www.lanbide.net webgunean aurkituko duten inprimaki ofizialaren bidez aurkeztu beharko dute eskabidea, deialdi hau gauzatze aldera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetza-hitzarmena sinatu duten finantza-erakundeen bidez. Erakunde horiek egiaztatuko dute eskatzaileek diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza eta eskakizunak betetzen ote dituzten.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) NANaren fotokopia edo nortasun-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.

b) Errolda-ziurtagiria.

c) Enpresa- edo negozio-proiektua eta bideragarritasun-txostena, finantza-erakundeak balioztatuko duena.

d) Pertsona bat baino gehiagoz osatutako enpresa-proiektuen kasuan, parte hartuko duten pertsona sustatzaileen zerrenda (izen-abizenak eta NAN/AIZ).

e) Inbertsio-plana eta egin beharreko inbertsioaren aurrekontu xehatua.

f) JEZeko alta eta bajen ziurtagiria, azken bi urteetan sustatzailea jarduera berriari dagokion epigrafean alta emanda egon ez dela egiaztatzeko.

Deialdi honen 3. artikuluko e), f) eta h) paragrafoetan aurreikusitako baldintzak eskabidearen barruan sartutako erantzukizunpeko adierazpen bidez jakinarazi beharko dira.

3.– Finantza-erakundeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorri beharko dituzte eskabideak eta horiekin batera aurkeztutako agiriak, erregistratzeko.

4.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2014ko azaroaren 15ean amaituko da.

8. artikulua.– Ebazpena emateko organo eskuduna, emate-prozedura eta ebazpena.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak du prozedura ebazteko eskumena, eta Lan Aktibazioko Zuzendaritza arduratuko da eskabideak kudeatu eta izapidetzeaz; horrek ez die eragingo, ordea, finantza-erakunde laguntzaileei esleitutako eginkizunei, aipatutako Zuzendaritzarekin lankidetzan beteko baitituzte.

2.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte. Kreditua zabaltzen ez bada, behin aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAAn argitaratuko da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren esanbidezko ebazpen bidez onartu edo ukatuko dira. Ebazpenean, honako hauek jasoko dira: enpresa bakoitzari ematen zaion diru-laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta diru-laguntzaren justifikazioa.

4.– Eskabideak ebazteko eta bana-bana jakinarazteko, gehienez hiru hilabeteko epea izango da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita, eta epe hori amaitutakoan diru-laguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da, baldin eta esanbidezko ebazpena ematen ez bada.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

6.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenak honako hau emango du jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean diru-laguntza jaso duten pertsonen zerrenda eta laguntzaren zenbatekoa, eta, bestetik, emandako diru-laguntzetan gertatu ahal izan diren aldaketak. Nolanahi ere, ebazpena berariaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

9. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Diru-laguntza ordainketa bakarrean emango da, aurretiaz, ordea, pertsona onuraduna Gizarte Segurantzako dagokion araubidean alta emanda dagoela egiaztatu beharko du Lanbidek,

eta onuradunak behean zerrendatutako agiriak emango dizkie finantza-erakunde laguntzaileei. Azken horiek, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorriko dituzte agiriok.

Hona hemen pertsona onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) JEZeko altaren kopia.

b) Hala dagokionean, kasuan kasuko lanbide-elkargoaren mutualitatea.

c) Eraketa-eskrituren kopia, hainbat sustatzailez osatutako proiektuen kasuan.

2.– Onuradunak finantza-erakunde laguntzailean irekitako kontuan ordainduko da diru-laguntza.

3.– Finantza erakundeek finantza-eragiketaren hasierako kapitala amortizatzeko aplikatuko dute sustatzaile onuradunari ordaindutako diru-laguntza.

10. artikulua.– Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak.

1.– Pertsona edo enpresa onuradunaren betebehar izango dira, oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutakoak, 50.2. artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Diru-laguntza ematea funtsatzen duen enpresa edo negozioa eratzea, hilabeteko epean, Ebazpena jakinarazten den egunetik.

b) Finantza-mailegua edo -errentamendua sinatu ondoren, inbertsioa 3 hilabeteko epean gauzatzea, gehienez ere.

c) Bi urtez eustea diru-laguntzaren xede izango den enpresa-jarduerari, JEZen alta ematen den egunetik zenbatzen hasita. Bi urte igaro baino lehen JEZen baja emanez gero, jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, deialdi honen 16. artikuluan xedatutako baldintzetan, eta eskatutako 2 urteak betetzeko geratzen den denborarekiko modu proportzionalean.

d) Finantza-mailegu edo -errentamenduaren kontratutik eratorritako betebeharrak betetzea.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzea laguntza jasotzeko betebeharrak eta baldintzak bete direla.

f) Erakunde hauek egin ditzaketen egiaztapen-jarduerak onartzea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

g) Helburu berberarekin beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

h) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.

i) Diruz lagundutako jardueren xedean edo izaeran nabarmen eragiten duen ezer gertatuz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari; era berean, jarduera horiek egiaztatzeko eta kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko prozeduretan laguntzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultze- edo zehapen-prozeduraren bat hasten bada, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

11. artikulua.– Inbertsioa justifikatzea.

Pertsona onuradunak 2 hilabeteko epea izango, inbertsio-proiektua gauzatzen den egunetik aurrera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan honako agiri hauek aurkezteko:

– Egindako inbertsioaren adierazpena, Lanbideren webgunean (www.lanbide.net) argitaratuko den ereduaren arabera.

– Deialdi honen babesean diruz lagundutako maileguarekin egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturen zerrenda. Faktura horiek inbertsio-proiektua gauzatzeko emandako gehienezko epearen barruko data izan beharko dute, eta zerrenda Lanbideren webgunean (www.lanbide.net) argitaratuko den eredu normalizatuaren arabera aurkeztu beharko da, fakturen kopiekin batera. Era berean, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Araudia onartzen duenak, II. kapituluan ezarritako ezaugarriak izan beharko dituzte faktura horiek.

12. artikulua.– Jarraipena eta kontrola:

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere esku izango du ikuskapen- eta kontrol-jarduerak egitea, deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko.

13. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

14. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntza ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk emandako edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin, baldin eta helburu edo xede berarekin ematen badituzte.

15. artikulua.– Amortizazioak.

Maileguaren onuradunak diruz lagundutako maileguaren amortizazioa, osorik zein zati batean, aurreratu nahi badu, hau da, kapital bizia gutxitu nahi badu, berariazko baimena eskatu beharko die Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta finantza-erakundeari.

Lanbidek helaraziko die baimena onuradunari eta finantza-erakundeari, eta azken horrek erabakiko du diru-laguntzaren zer kopuru, zenbatuta baina sortu gabe dauden interesei dagokiena, itzuli behar duen onuradunak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hasiko du itzultze-prozedura, hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta hark adieraziko du, dagokionean, pertsona onuradunak finantza-erakundeak aurretiaz kalkulatutako zenbatekoa itzultzeko betebeharra duela.

Finantza-erakundeak aurreratutako amortizazioa baimenduko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baimena badu eta onuradunak itzuli beharreko diru-laguntzaren zatia itzultzen badio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

Hartara, eta beharrezkoa bada, eskabidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura iritsi zen egunaz geroztiko lehen epemugatik aurrera zenbatuko da kopuru hori.

16. artikulua.– Ez betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten pertsonak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du; ebazpen horren bitartez, jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar dituztela adieraziko du, eta kopuru horiei diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrerako legezko interesak erantsi beharko zaizkie, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, hala xedatzen baitu abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen duenak.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntza jaso duen pertsonari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, egokitzat jotako alegazioak edo egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez 12 hilabetekoa izango da.

4.– Ebazpenak arauren bat bete gabe utzi dela iritzi, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat emanez gero, interesdunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

5.– Borondatezko epe horretan diru-laguntza itzultzen ez bada, diru-laguntza berreskuratzeko premiamendu bidera jotzeko izapideei ekingo zaie.

17. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

1.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betetzearen ondorioz lortutako datu pertsonalak bere titulartasuneko fitxategi batean sartuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Fitxategi hori, «Enplegurako eta prestakuntzarako diru-laguntzak» izenekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak datu pertsonalak biltzeko dauzkan fitxategiak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 10eko Aginduaren bidez dago araututa.

2.– Halaber, interesdunek datu horietara jotzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, baita datuok zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak ere, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009, 01009 Gasteiz).

18. artikulua.– Eskumenari buruzko Europako araudia.

Deialdi honetan jasotako diru-laguntzek aintzat hartu behar dute Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduak, 2014ko ekainaren 17koak, ezarritakoari; izan ere, Erregelamendu horretan (Kategorien araberako salbuespenen Erregelamendu orokorra; Europar Batasuneko Aldizkari

Ofiziala, 187. L., 2014ko ekainaren 26koa) xedatzen da zer laguntza-mota diren bateragarriak barne-merkatuarekin Tratatuaren 107. eta 108 artikuluak aplikatuz. Zehazki, aipatutako Erregelamenduaren 22.3a) artikulua da aplikagarria.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erakunde laguntzaileak izendatzea.

Erakunde laguntzaile izendatuko dira deialdi hau gauzatzeko eta deialdian araututako laguntzak kudeatu eta ordaintzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutakoak, 52. artikuluan xedatutako baldintzetan, beti ere, eginkizun horietan parte hartuko duten finantza-erakundeak.

Laguntzaileak izateko interesa duten finantza-erakundeek deialdi honen I. eranskinean jasotako hitzarmena sinatu beharko dute.

I. ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBTZUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA FINANTZA-ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN EREDUA, EKINTZAILETZA-PROIEKTU BERRIAK FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA GAUZATZEKO, JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA SORTZEA BULTZATZEKO NEURRI GISARA.

.....(e)n, 2014ko.....aren.....(e)(a)n.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Juan Maria Aburto Rique jauna, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko (aurrerantzean, Lanbide) lehendakari gisara, urriaren 13ko 3/2011 Legeak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoak, 9.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, ekintza honetan parte hartzeko gaitasuna duelarik.

Beste aldetik,..... jauna/andrea,..... finantza-erakundeko ordezkari gisara.

ADIERAZTEN DUTE:

1.– Europa 2020 Estrategiak oinarritzat hartutako hiru lehentasun handietako bat hazkunde adimentsua dela, hots, ezagueran eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea, eta, ildo horretan, baldintza orokorrak eta finantzazioa eskuratzeko modua hobetzea dela ekimen adierazgarrienetako bat, ideia berritzaileak hazkundea eta enplegua sortzen duten produktu eta zerbitzu bilaka daitezen bermatzeko.

2.– Unera arte egindako azterlanen arabera, EAEn, finantzaketa lortzeko zailtasunak oztopatzen duela, nagusiki, ekintzailetza. Euskal gizartea ohartzen da pertsona ekintzaileak edukitzearen garrantziaz: norberaren laneko etorkizuna diseinatzearen eta sortzearen aldeko apustua egiten baitute, eta aldi berean, beste pertsona batzuentzako lan-aukerak sortzen dituzte. Proiektu horiek enplegua sortzeko duten gaitasunak guztiz nahitaezko bilakatzen du horiei osoko sostengua eskaintzea, dela hasieran, negozio-ideien bideragarritasunari buruzko aholkularitzarekin, dela proiektua abian jartzeko unean zein enpresa berrien bizitzaren lehen faseetan.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzailetzari sostengua emateko programak sendotu nahi dituela ekintzaileek finantzaketa errazago eskuratzeko tresna berri baten bidez, Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016 Enplegu Planaren eta 2013-2016 Plan Estrategikoaren esparruan. Izan ere, lehenengoaren xedeetako bat ekintzailetza erraztea eta autoenplegua sustatzean oinarritzen da, aberastasuna eta enplegua sortze aldera; bigarrenak ere autoenplegua eta ekonomia-jarduera bultzatzea aipatzen ditu xedeen artean.

4.– Horretarako beharrezkoa dela esparru publiko eta pribatuen arteko lankidetza eta, lankidetza horretan, finantza-erakundeen parte-hartzea giltzarria dela.

5.– Hori dela eta, akordio bat ezartzeko beharrizana sortzen dela, finantza-erakundeen eta Lanbideren arteko hitzarmen honen bidez egikaritzen dena, horrela, finantza-erakundeek eragiketa mota horiek gertatzeko erraztasunak ematen dituen egoera bat sortzen lagunduko baitute; egoera berri horretan, finantzazioa baldintza lehiakorretan eskuragarri izatea izango da faktore giltzarria.

6.– Lankidetza-hitzarmen honek ezartzen duela, alde batetik, hitzarmenean sartutako finantza-erakundeek ematen dituzten finantza-mailegu eta -errentamenduko eragiketak zer baldintzatan gauzatu beharko diren. Finantza-eragiketa horiek enplegua sortzen duten enpresa sortu berriek abian jartzeko behar dituzten aktiboetan egin beharreko inbertsioak finantzatzera bideratuko dira, beti ere, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzeko diru-laguntzen deialdiaren esparruan. Era berean, finantza-erakundeen ekintzak, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzeko laguntzen deialdia kudeatzeko eta ordaintzeko lanei lotutakoak, modu koordinatuan arautu behar dira, deialdiaren lehen xedapen gehigarrian eta beste xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren (azaroaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren bidez onartua) 52.3 artikulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko 7. artikulua.

7.– Horregatik guztiagatik, Lanbidek eta..... finantza-erakundeak lankidetza-hitzarmen hau egitea erabaki dutela. Hona hemen hitzarmen honen nondik norakoak xedatzen dituzten.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

1.– Hitzarmen honen xedea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta..... ..... finantza-erakundearen arteko lankidetza zer baldintzatan gauzatuko den arautzea, euskal ekintzaileek, interes-tipo murriztuko maileguen bidez, beren inbertsio-proiektuak finantzatu ahal izateko finantzazio-ildo bereziak erabakitzeko, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratutako diru-laguntzen deialdiaren barruan. Deialdi hori jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea bultzatzeko neurri gisara onartu zuen Lanbideko Administrazio Kontseiluak, 2014ko..... aren.....(e)ko saioan.

Xede horretarako,..... finantza-erakundeak konpromisoa hartzen du 2014an zuzeneko finantza-maileguak edo -errentamenduak emateko edo errazteko, hitzarmen honetan zehazten diren eta aipatutako deialdian aurreikusten diren baldintzetan, pertsona sustatzaileek beren enpresa edo jarduera ekonomiko berriak abiarazteko behar dituzten aktiboak erosi ahal izateko. Jarduera horiek deialdian jasotako Kontabilitate Plan Orokorreko epigrafeetako batean sartu beharko dira, eta 2014 ekitaldian diru-laguntza jasotzeko baldintzak bete beharko dituzte, aipatutako deialdiaren babesean.

2.– Orobat, hitzarmen honen xedea da arautzea zer lankidetza-araubide bete beharko duen ..... finantza-erakundeak, aipatutako deialdiaren indarrez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emango dituen diru-laguntzen kudeaketari eta ordainketari dagokionez, eta, beti ere, honako arau hauetan ezarritakoari men eginez: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko (azaroaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren bidez onartua) 52.3 artikulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko 7. artikulua.

3.– Lanbidek jakinaraziko dio..... finantza-erakundeari zein izango den finantza-erakundeak eman beharreko maileguak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kredituaren gehienezko zenbatekoa. Zenbateko hori hainbat baldintzaren mende egongo da, hala nola, diru-laguntzen deialdia finantzatzera bideratutako guztizko kreditua, finantza-erakundeen kopurua eta horietako bakoitzak kudeatu ahalko duen bolumena.

Hasiera batean esleitutako zenbatekoa aldatu egin ahalko da, finantza-erakunde laguntzaileen gauzatze-aurreikuspenak alda daitezkeela aintzat hartuta, eta aintzat hartuta, orobat, beste

finantza-erakunde batzuk erants daitezkeela ekimen honetara. Horren berri ahal bezain laster emango zaio..... finantza-erakundeari.

Bigarrena.– Maileguen baldintzak eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Hitzarmen honen babesean emango diren finantza-mailegu edo -errentamenduen eragiketak gauzatzeko baldintzak.

Hitzarmen honen babesean emango diren finantza-mailegu edo -errentamenduen eragiketak baldintza hauetara doitu beharko dira:

– Maileguaren gehienezko zenbatekoa: 50.000 euro sustatzaile bakoitzeko; zenbateko horrek inolaz ere ezingo du gainditu proiektuaren inbertsioaren % 95.

– Epea: 5 urte, gehienez ere. Maileguen kasuan, epe horren barruan sartzen da maileguaren lehen 6 hileetako gabealdia.

– Epemugak: gutxienez, hilean behingoak.

– Eragiketei aplikatuko zaien gehieneko interes-tasa: % 7ko UTB, komisio eta gastu mota guztiak barne.

2.– Ez da inolako berme edo abalik eskatuko deialdi honetan jasotako maileguetan, eta ez zaie ikerketa- edo irekiera-komisiorik aplikatuko.

3.– Finantza-errentamendu bidez –uztailaren 29ko 26/1988 Legeak, Kreditu Erakundeen Diziplinari eta Esku-hartzeari buruzkoak, Zazpigarren Xedapen Gehigarrian definitzen dituen bezala– finantzatutako aktibo finkoei dagokienez, pertsona onuradunak ondasun hori erosteko aukera gauzatzeko konpromisoa hartu beharko du, nahitaez.

4.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hitzarmen honetan finantza-erakundeekin onartutako finantzazio-akordioen interesak diruz lagundu ahalko dira; horrela, hasierako kapitalari aplikatuko zaizkion interesen eta urteko % 4ko tasari, eguneratu ondoren, dagozkien interesen arteko aldea ordainduko da.

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratutako interes-tasa nominala aplikatuko da eguneratze-tasa gisara.

Edonola ere, interes-tasengatiko hobaria ezin da eragiketa baimentzean edo formalizatzean jarritako interes-tasa nominala baino handiagoa izan.

Hirugarrena.– Hitzarmen honetan araututako finantza-mailegu eta -errentamenduko eragiketen beste eskakizun batzuk.

Finantza-erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Formalizatutako maileguak ordaintzea eta ezarritako xedeetarako aplikatzea.

a.1.– Hitzarmen honi atxikitako finantza-mailegu eta -errentamenduko eragiketak modu eraginkorrean bideratuko dira aurreikusitako inbertsioak finantzatzera; horrela, ezingo dira aplikatu finantza-erakunde mailegu-emaileak izan ditzakeen beste mailegu batzuk amortizatu edo konpentsatzera.

a.2.– Finantza-erakundeak osorik ordainduko du maileguaren zenbatekoa pertsona sustatzailearen banku-kontuan, eta ezingo du aplikatu inolako murriztapenik, atxikipenik edo haren beste

kreditu batzuekiko konpentsaziorik. Ezingo da pignoraziorik ezarri hitzarmen honi atxikitako mailegu etako funtsen gainean.

b) Mailegu osagarriak.

Finantza-erakunde laguntzaileak hitzarmen honetara atxiki gabeko beste mailegu edo kreditu batzuk ematen badizkio onuradunari, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzeko deialdi honekin lotutako inbertsio-proiektu beraren finantzazioa osatzera bideratuta, hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritako baldintzak aplikatuko dizkie mailegu osagarri horiei.

c) Ez-betetzeak.

Aurreko edozein ataletan ezarritakoa ez betetzeak automatikoki kanporatuko du erakunde laguntzailea hitzarmen honetatik, eta horrek ez du eragotziko erakunde laguntzaile izatetik eratorri daitezkeen ondorioak, hots, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineak, azaroaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren bidez onartuak, xedatzen dituenak, aplikatzea.

Laugarrena.– Aldeen konpromisoak espedienteen izapidetzeari eta kudeaketari dagokienez.

1.–..... finantza-erakundeak laguntzen kudeaketa eta ordainketarekin lotutako ekintza hauek gauzatuko ditu:

a) Informazioa ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratuta emango dituen laguntzetan interesa dutenei, laguntzak eskuratu ahal izateko eskakizunei eta eskaera egiteko epeari buruz.

b) Sustatzaileak aurkeztutako diru-laguntzaren eskabidea eta gainerako agiriak jaso eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igortzea, azken horrek erregistra ditzan.

c) Eskabideak iristen diren hurrenkeran aztertzea, bai eta interesdunek ematen dizkieten negozio-planak, bideragarritasun-txostenak eta inbertso-planak ere; halaber, eskatzaileek deialdiaren 3. artikuluan aurreikusitako gainerako eskakizunak betetzen ote dituzten egiaztatu beharko du, diru-laguntza emateko erabakigarriak diren heinean.

Finantza-erakundeak autonomia osoz aztertuko ditu eragiketak, horretarako baliatzen dituen prozedurekin, baina ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratutako deialdian eta hitzarmen honetan xedatutako baldintzak betez, beti ere.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igortzea, euskarri elektronikoan eta paperezkoan, sinatutako finantza-akordioei buruzko informazio guztia eta negozio- zein inbertsio-planari egindako ebaluazioa, eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuta eta zenbateko hori lortzeko egindako kalkuluaren informazio xehatuarekin, baita dagozkien ebazpen-proposamenak ere, aurkeztutako agirietatik eta finantza-erakundeek egindako balioespen-ekintzetatik eratorritako erabakien arabera.

e) Diru-laguntzaren onuradunak haren ordainketarekin lotuta aurkeztuko dituen beheko agiri hauek jasotzea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igortzea, euskarri elektronikoan eta paperezkoan:

– JEZeko alta-agiriaren kopia.

– Hala dagokionean, kasuan kasuko lanbide-elkargoaren mutualitateko alta-agiriaren kopia.

– Eraketa-eskrituren kopia, hainbat sustatzailez osatutako proiektuen kasuan.

f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igortzea formalizatutako finantza-mailegu edo -errentamenduen polizak, euskarri elektronikoan eta paperezkoan.

g) Sustatzaile onuradunari ordaindutako diru-laguntza finantza-eragiketaren hasierako kapitala amortizatzeko aplikatzea, eta maileguaren amortizazio partziala, diru-laguntzaren zenbatekoari dagokiona, gauzatzearen egiaztagiriaren kopia Lanbidera bidaltzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ordainketa egikaritzen duen egun berean aplikatuko da diru-laguntza.

h) Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren beste edozein jardunetan laguntzea.

i) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak deialdi honen kudeaketarekin lotuta egin ahalko dituen egiaztapen-jardun guztiak onartzea. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beretzat gordetzen du hitzarmen honetan aurreikusitakoez gainera beste agiri osagarri batzuk eskatzeko ahamena.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Finantza-erakundearen esku jartzea hitzarmen hau egikaritzeko beharrezkoa den informazio eta aholkularitza guztia eta, horretarako, aldian aldiko bilerak antolatzea finantza-erakundeekin.

b) Pertsona sustatzaileen nortasunari buruzko datuak egiaztatzea, baita langabezia-egoeran dauden edo ez, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena eman ote duten ere.

c) Finantza-erakundeari diru-laguntza emateko ebazpenaren berri ematea; ebazpen horretan zehaztuko dira eragiketa bakoitzari lotuta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eta diru-laguntzaren baldintzak.

d) Diru-laguntza ordaintzea, pertsona onuradunak finantza-erakunde laguntzailean berariaz irekitako kontuan.

e) Une oro ematea eskuragarri dauden funtsen egoeraren berri finantza-erakundeari, espedienteak ebatzi ahala murrizten joango baitira, baita funts horiek izan ditzaketen aldaketen berri ere.

f) Pertsona onuradunen enpresa-jardueran gertatzen diren bajen berri ematea finantza-erakundeari, baldin eta diruz lagundutako finantza-eragiketan ezarritako epea bukatu aurretik gertatzen badira.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako maileguak behar baino lehen amortizatzea.

1.– Pertsona onuradunak diruz lagundutako maileguaren amortizazioa, osorik zein zati batean, aurreratu nahi izanez gero, hau da, kapital bizia gutxitu nahi izanez gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren berariazko baimena beharko du.

Lanbidek helaraziko die baimena onuradunari eta finantza-erakundeari, eta azken horrek erabakiko du diru-laguntzaren zer kopuru, zenbatuta baina sortu gabe dauden interesei dagokiena, itzuli behar duen onuradunak. Kopuru hori eskabidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura iritsi zen egunaz geroztiko lehen epemugatik aurrera zenbatuko da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hasiko du itzultze-prozedura, deialdian aurreikusitako baldintzetan, eta hark adieraziko du, dagokionean, pertsona onuradunak finantza-erakundeak aurretiaz kalkulatutako zenbatekoa itzultzeko betebeharra duela.

Finantza-erakundeak aurreratutako amortizazioa baimenduko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baimena badu eta onuradunak itzuli beharreko diru-laguntzaren zatia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzultzen badio.

2.– Amortizazioa aurreratzeak, osorik zein zati batean, ez dio kostu gehigarririk eragingo onuradunari.

3.– Finantza-erakundeak klausula honetan ezarritako preskripzioak sartuko ditu hitzarmen hau garatzeko sinatuko diren mailegu-polizetan, eta haien berri emango die pertsona onuradunei diruz lagundutako mailegua guztiz edo hein batean amortizatu nahi badute.

Finantza-erakundeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emango dio amortizatutako zenbatekoen berri.

Seigarrena.– Hitzarmenaren informazioa eta jarraipena.

1.– Jarraipen Batzorde bat sortuko da, hitzarmen honekin eta gainerako finantza-erakundeekin sinatutakoekin gerta daitezkeen interpretazio- eta gauzatze-arazoen jarraipena egiteko eta horiek ebazteko. Batzorde hori finantza-erakunde laguntzaileetako ordezkari banaz eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lan Aktibazioko Zuzendaritzako hiru kidez osatuko da.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantza-erakunde laguntzaile guztiei jakinaraziko die emandako maileguen guztizko bolumena, baita erakunde bakoitzeko pertsona onuradunen zerrenda bana ere.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantza-erakunde laguntzaile guztiei jakinaraziko die, bere unean, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzeko deialdian aurreikusitako laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kreditua xahutu dela.

Zazpigarrena.– Kontratua deuseztatzea eta ez betetzea.

1.–..... finantza-erakundeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua jakinaren gainean jarriko du kontratua deuseztatzen denean edo betetzen ez denean, bereziki, interesak edo printzipala guztiz edo hein batean ordaintzen ez badira edo berandu ordaindu badira. Gisa horretako gorabeheren berri jakin eta berehala jakinaraziko dio.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantza-erakundearekin kontsultatu ondoren, neurri aplikagarriak aztertuko ditu eta, dagokionean, onuradunak laguntza guztiz edo hein batean itzultzeko prozeduraren izapideak hasiko dira. Lanbidek idatziz emango dio horren berri finantza-erakundeari.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren lurralde-eremua eta indarraldia.

1.– Hitzarmen honen lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

2.– Hitzarmen honen indarraldia sinatzen den egunean hasiko da, eta bere babesean sinatutako finantza-mailegu edo -errentamenduen eragiketak ezeztatu arte eta horiekin lotutako administrazio-espediente guztiak, hots, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdian emandako laguntzetatik eratorriak, bukatu arte iraungo du. Aipatutako deialdia ekonomia-jarduera eta enplegua sortzea bultzatzeko neurri gisara onartu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio kontseiluak, 2014ko.....aren...(e)(a)n hartutako Akordioaren bidez.

Bederatzigarrena.– Hitzarmena salatzea.

Hitzarmen hau salatzeko nahikoa izango da alderdietako batek klausularen bat ez betetzea.

Hamargarrena.– Publizitatea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta hitzarmena sinatu duen erakundeak konpromisoa hartu dute hitzarmenari behar den publizitatea emateko, maileguen onuradunei eragiten dieten alderdi guztiei dagokienez.

2.– Finantza-erakundeak, berriz, esanbidez aipatu behar ditu bere publizitatean eta kontratuen klausuletan maileguen onuradunei eragiten dieten hitzarmenaren alderdi guztiak.

3.– Era berean, finantza-erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen sukurtsal guztiei jakinarazi behar dizkie hitzarmen honen baldintzak eta helburuak, baita beharrezko jarraibideak eman ere, hitzarmenaren eraginpeko lurralde-eremu guztian behar bezala bete dadin.

Hamaikagarrena.– Desadostasunak ebaztea.

Hitzarmen honen 6. klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordean ebatzi ezin izan diren eztabaida eta gatazkak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ebatziko dira.

Eta adostasunaren frogagarri, akta hau izenpetu dute adierazitako toki eta egunean.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izenean, JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.	Finantza-erakundearen izenean,